

SINADURA-BILKETA

SOS GOROSTIZA - KASTREXANA
HTS / VSF EZ!



#xBRKsinatzenDUT

bultzatzen du:



diruz-laguntzen du:



Kolaborazioa: Barakaldo Naturala eta Eguzki

Bi urteko epean (2020aren hasieran), Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak Hegoaldeko Tren Saihesbidearen obrak hasiko dituzte, Barakaldo zeharkatuko du, Trapagaraneko mugatik Kadagua ibairarte, honek suposatuko du beste eraso bat birika berdeari eta Gorostiza eta Kastrexanako landa auzoei.

Aurreko urteetan, hainbeste maite dugun eta hainbeste jende bisitatzen duen inguruak zelako orbainak jasan dituen ikusi dugu. Bai Barakaldotik zein beste herri batzuetatik bisitatzen duten inguru hau, nahi ta nahiez, bere fisionomia aldatuz joan da: SuperSur, Oiolako urtegia, Ur-Partzuegoaren hoditeria handia, Gorostizan dagoen ACBren presa, etab.

Orain, inguru hortan Hegoaldeko Tren Saihesbidea aurreikusten da eta arrazoi bakarra Seranteseko tunela da. Bilboko Portu Agintaritzak (Eusko Jaurlaritzak) eraikitzea erabaki zuen, jarraipena emango zion proiektu sendo baten justifikaziorik gabe eta 50 milioi euroko kostuarekin. Errealitatea, ia hamarkada batean zigilatuta egon den tunela izan da.

Orain ordaindu arazi nahi diguten hipoteka baten pieza bihurtu dute, nahiz eta eskatu ez dugun, ad hoc merkantziei irteera emateko ibilbide bat diseinatuz, eta funtzionalitatea emateko Bilboko Portuko merkantziei alferrikako irteera bat eman ahal izateko. Eta helburu honekin, 560 milioi xahutzeko asmoa dute, soilik lehenengo fasean.

Eta konbentzitzeko Abiadura Handiko konexioarekin justifikatzen duten, Frantziaren erabakiz, Europan jarraipenik ez duena. Lehen Corredor Atlántico-tik Madril, Lisboa eta Algecirasantza, orain ministroak Gobernu autonomikoari baieztatu dionetik ez dela merkantzia konexiorik egongo Abiadura Handiarekin Gasteizetik aurrera, Cantábrico-Mediterraneo korredoreari buruz hitz egiten dute. Ia bihar zer bururatzen zaien...

Ez badugu ezer egiten, gure inguru naturalaren eta gure landa auzoen defentsan ez bagara posizionatzen, gure bizitzan zehar hainbeste asteburuetan gozatu dugun hortaz, bai bidexketatik pasiatu, atajoak eta leku zoragarriak bilatu, bai bizi kalitateagatik, eskaintzen digun osasunagatik, bere epelean bizi garenontzat, gaur egun ezagutzen duguna izateari utziko dio.

Horregatik, guk "BARAKALDOGATIK, NIK SINATZEN DUT" esaten dugu. Eta zuk?

Hurrengo asteetan Barakaldoko auzo desberdinetan sinadurak batzen ikusiko gaituzu, laguntzeko prest egon diren auzo desberdinetako saltokietan utziko ditugu, edo zuretzat erosoagoa bada, [hemen](#) klikatu dezakezu... Sinatzeko arrazoi gehiago nahi badituzu, bideoan zure auzokideek ematen dituztenak ikusi ditzakezu. Gure asmoa sinadura guztiak gure alkatesari, Amaia del Campo, ematea da, ikus dezan zenbat barakaldarrek konpartitzen duten berak 2015ean proiektuari buruz esandako "hau astakeria bat da" esaldia. Urte eta erdi beranduago, "eskualdeko garapen jasangarrirako itxaroten genuen proiektua da" esan.

... eta ez bazara Barakaldon bizi, [hemen](#) ere esan diezaiokezu. (Barakaldoko gazte batzuen ekimena change.org-en)

alt=""

```
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/dvke0TS_pZY','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'}',{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```